

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

Ikasleen defentsan, nor?

Izan zitekeen gu gobernatzen gaituztenak orain arte egin dugun ibilbidea kontuan eduki nahi izatea; gaizki egindakoak zuzendu eta ongi egindakoak indartzeko besterik ez bada ere.

Izan zitekeen, halaber, gu gobernatzen gaituztenentzat hezkuntzak garrantzia izatea. Sinestea, hezkuntza, bor-bor darabilten askatasuna eta bizikidetzat demokratikoa bermatzeko osagai funtsezkoa eta ezinbestekoa dela: jendartea kohesionatzeko urrezko tresna izan litekeela, alegia.

Eta izan zitekeen, eskubide hori herritar guztientzat ahalbidetzeko ahalegina izatea haien lehentasuna. Ahalbidetze lan horretan, gainera, kalitatea izatea ezaugarri behinena. Kalitatea, hezkuntza zientziek, adituek egindako ikerketek eta hezitzaileen eguneroko lanaren eskarmentuak esaten dutena kontuan harturik.

Aspaldi honetan kexu ginen jendarreak eta agintariak ez ziotela hezkuntzari beharrezko arreta jarzen eta benetako balioa ematen.

Azken asteetako albisteei eta elkarrizketei erreparatu, ordea, hezkuntza gaiak egunerokotasuneko lehen mailara pasa direla ikusi dugu. Eskandaluak jantziriko protagonismoa, nola bestela?

Lehendakaria komunikabideei hainbat hezkuntza arloko egokitasunen gaineko azalpenak ematen, kontseilariak haien aginduak ez betetzeko tentazioa agertzen duten hezitzaileak zigorrarekin mehatxatzen, besteen artean, dira azken egun hauetan ikusi ahal izan direnak.



ALBERTO ELSOEGI

Baina benetan zenbat jenderen kezka da eskolan egiten den lana eta ahalegina; zenbat dira Euskal Herriko eskolak gobernatzen dituzten administrazio ezberdinek egin nahi dutena egiteko erabiltzen ari diren arazoietan sakondu dutenak?

Benetako izua ematen du erabiltzen ari diren argudioak entzuteak. Oinarri zientifiko guztien kontrakoak, gehienetan.

Izua sortzen du argudioen atzean neurri horiek inposatzeko prest dituzten armak ikustea: dekretuak, aginduak, zigorrak, kontzertuak kentzeko mehatxuak eta “betetzen ez dituztenentzat neurriak hartuko ditugula” iragarpen lauso eta iradokitzailea.

Zaparradaren azpian guztiok gaude, baina batez ere euskal haur eta gazteak. Helburuak betetzeko “guztiak balio du” dinamika ero honetan ahaztuenak bilakatu dira, akaso.

Martxa honetan, haien segurtasun fisiko eta intelektualaren alde eskolatik eta agintarietatik defendatuko dituen mugimendu indartsu bat antolatu beharko dugu. Izan zitekeen, bai, baina izua ematen du zer izan daitekeen ikusteak! ■

Benetako izua ematen du erabiltzen ari diren argudioak entzuteak

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ekin genion urtero bezala zirkuituari, Senpereko lakuari itzulia emanez. Ohiko lagunak agurtzeko parada. Eguerdi alderako ohartuak ginen, gehiago ziren gurutzatu ez genituenak. Senperen bertan, aparkalekuek erakusten zuten lakuaren inguruan baieztatutakoa, jendea saldoka baino saltoka ibiltzeko lekua bazegoela, zirkuituaren ibilbideari hamar bat minutu kentzeko aukeran geundela.

Eguraldiaren grisari egotzi diote antolatzaileek partehartzearen eskasa, aurreko urteetakoekin alderatuta kezkatzeko modukoa jo dutena. Eta alde horretatik,

Urratsez

esan dezaket aurtengoa ez dela izan euritsuena, gogoan baitut oinetakoak blai eta galtzak lokatz, aurten baino jendetsuagoak ezagutu ditugula, hegoaldeetik heldutako autobus eta autoen ilarak Senperera egiteko Azkainetik hara metroka hurbiltzen zirela. Aurten ez dugu behar izan kotxea primeran eramatea primerako bidaia egiteko. Bainan ez da faltan bota Hendaiako ikastolako ondoko gunean goi-erritarren kanpalekua, babarrunak eta paella lagun urruñarren pozerako. Ez da aski izan eta antolatzaileek laguntza eskatzeari ekin diote. Orokurrean, ez dirudi euskalgintza bere une egokienean dagoenik, gure hedabideak jarraitu besterik ez dago. ■